

2.- Argazkilaritza digitalaren tresneria

Kapituluaaren helburuak

- Argazkiaren prozesu digitala ezagutzea.
- Argazki digitala egiteko erabili ohi diren tresnak erabiltzen ikastea.
- Irudi-sorkuntzari loturiko prozedura berriak ezagutzea

Kapituluaaren edukiak

Kontzeptuzko edukiak

- Prozesu digitalaren oinarriko funtzionamendua.
- Argazki digitala egiteko erabili ohi diren tresnen ezaugarri teknikoak.
- Prozesu digitalen antolakuntza.

Prozedurazko edukiak

- Prozesu digitala amaitzeko behar izaten diren tresnak erabiltzea.
- Argazkilaritza digitalean erabili ohi diren tresnak identifikatzea.
- Argazki digitalak egiten hasi aurretiko prestakuntza teknikoak ezagutzea.

Jarrerazko edukiak

- Irudiaren arloan izan den berrikuntza teknologikoaz ohartzea.
- Talde-lanean aritzeko gogoia izatea.
- Komunikazioaren arloan baliabide teknologikoek duten garrantzia balioestea.

Ebaluazio-irizpideak

- Prozesu digitalean ematen diren urratsak deskribatu eta bereizi.
- Argazki digitalak egiteko erabili ohi diren tresnak deskribatu eta bereizi.
- Argazki-saio baten prestakuntza antolatu eta garatu.

DVDarekin lanean «2. Argazkilaritza digitalaren tresneria»

DVDa DVD-irakurgailuan sartu eta menu nagusia edo hasierako menua agertuko da pantailan.

ARGAZKILARITZA DIGITALA: TEORIA ETA PRAKTIKA *Argazkilaritza digitalaren tresneria*

Sarrera (01:54 min)

Prozesu digitala (06:08 min)

Argazkilaritza digitalaren tresneria (14:38 min)

LANTEGIA: Argazki-saio bat egiteko tresneria prestatzen. (04:56 min)

DVDarekin lan egiteko proposamenak

Sarrera (01:54 min)

PROPOSAMENA

Ikusi eta entzun. (Unitatearen edukiaren laburpena da, aurkezpen modura emana).

Prozesu digitala.(06:08 min)

Atala bost saiotan banatua dago:

- Argazkiak ateratzeko.
- Argazkiak deskargatzeko
- Irudiekin jolasean.
- Irudiak inprimatzeko.
- Argazkiak sarean kokatzeko.

PROPOSAMENA

Ikusi atala osorik. Ikusi ondoren, beheko galderak egin ikasleei denek entzuteko moduan. Ikasleen erantzunak ere denek entzuteko moduan egitea proposatzen da. Horiek horrela egitea proposatzen da, ikus-entzunezkoan esandakoak berrikuste aldera eta ikasle batek gogoratzen ez duena beste batek gogorarazteko, edo inork gogoratzen ez badu, irakasleak gogoratzeko guztiei.

GALDERAK

- Zerrendatuko zenituzke ikus-entzunezkoan adierazitako prozesu digitalari buruzko lanak? Zertan datza horietako lan bakoitza?
- Nola konektatzen dira argazki-kamera eta ordenagailua?

- EGIA ala GEZURRA:

- Argazki digitalen kalitatea ordenagailuan ikusten da hoberen.
- Web-orrietan argitaratzeko, argazkiek ahalik eta handienak izan behar dute, hartzaileari lehenago, osoago eta hobeto ikusten direlarik iristen zaizkiolako.

Argazkilaritza digitalaren tresneria (14:38 min)

Atala bi saiotan banatua dago:

- .- Argazki-kamera digitalen osagarriak.
- .- Lan-eremuko elementuak.

PROPOSAMENA

Ikusi atala osorik. Ikusi ondoren, beheko galderak egin ikasleei denek entzuteko moduan. Ikasleen erantzunak ere denek entzuteko moduan egitea proposatzen da. Horiek horrela egitea proposatzen da, ikus-entzunezkoan esandakoak berrikuste aldera eta ikasle batek gogoratzen ez duena beste batek gogorarazteko, edo inork gogoratzen ez badu, irakasleak gogoratzeko guztiei.

GALDERAK

- .- Argazki-kameren objektiboez ari garelarik, nolakoak dira foku-luzera aldatzeko erabili ohi diren osagarriak?
- .- Zertarako erabiltzen dira iragazkiak?
- .- Irudiak ukitzeko programek ahalbidetzen al dute iragazkiak ezartzea?
- .- Zergatik jarri ohi zaio iragazki neutro babeslea argazki-kameraren objektiboari?
- .- Zer egiten dute fotometroek?
- .- Zertarako erabiltzen da flasha?
- .- Ordezko bateriak eskura izatea garrantzitsua al da? Zergatik?
- .- Noiz da ia ezinbesteko kliskagailua? Eta tripodea?
- .- Zertarako erabili ohi dira urperako karkasak?

.- EGIA ala GEZURRA:

- Ez dugu zertan garbitu objektiboa, gero irudiak ukitzeko programarekin gustuko ez dugun guztia konpon daitekeelako. Zergatik?
- Edozein maletak balio du argazkilariaren tresneria garraiatzeko, baldin eta guztia behar bezala babestua eta ordenatua badao.

- Zein da memoria-txartelen betekizuna?
- .- Zeri esaten diogu lan-eremu?
- .- Zein dira lan-eremuko elementuak? Zertarako erabiltzen da bakoitza?

PROPOSAMENA

Hiru atalak ikusi eta ariketak egin ondoren, ikasle bakoitzari «HIZTEGIA» duen orrialdea emango diogu. Ondoren, esango diegu han jasotako hitzak eta haien azalpena denek entzuteko moduan irakurtzeko. Bat irakurrita ikus-entzunezkoan non eta noiz agertu den terminoa gogoratuko dute denen artean. Gauza bera egingo dugu sarrera bakoitzarekin, irakurlea aldatuz.

LANTEGIA: Argazki-saio bat egiteko tresneria prestatzen (04:36 min)

PROPOSAMENA

Ikusi atala. Ikusi ondoren, beheko galderak egin ikasleei denek entzuteko moduan. Ikasleen erantzunak ere denek entzuteko moduan egitea proposatzen da. Horiek horrela egitea proposatzen da, ikus-entzunezkoan esandakoak berrikuste aldera eta ikasle batek gogoratzen ez duena beste batek gogorarazteko, edo inork gogoratzen ez badu, irakasleak gogoratzeko guztiei.

GALDERAK

- .- Argazkilariaren tresneria prestatzen ari garela, zertan jarri behar dugu arreta?
- .- Argazki-kameraren objektiboa, zerez babestu behar dugu?
- .- Ados al zaude baieztapen honekin: Berdin dio memoria-txarteleko irudiak deskargatu ez badituz; argazki gehiago egin nahi badut eta ez badaukat leku gehiago, irudi eskasak ezabatu baino ez dut egin behar.
- .- Tripodea aztertzean, zertan jarri behar dugu arreta?
- .- Egin nahi duzun argazki mota egiteko, komenigarria iruditzen al zaizu garbitzeko tresnak eramatea? Zergatik?

.- EGIA ala GEZURRA:

- Hari elektrikoak, bai flasharenak, bai bateria kargadorearenak, bai beste tresnaren batenak, zenbat eta estuago bilduta hobe, leku gutxiago betetzen dute eta.
- .- Tresneria garraiatzeko daukazun poltsaren arabera, nola antolatuko zenuke zure tresneria digitala bertan?

HIZTEGIA

USB kablea: ordenagailua edo inprimagailua eta argazki-kamera elkarri konektatzea ahalbidetzen digun kable berezia da, dela argazkiak inprimatzeko pasatzeko, dela pantailan ikusteko edo disko gogorrean gordetzeko.

Urperako karkasa: karkasa estankoa, argazki-kamera digital arruntak urpean erabiltzen direnean babesteko.

Kliskagailua: argazki-kamerari kliska eragiten dion urruneko agintea. Kliskagailuak haridunak eta hari gabeak izan daitezke.

Argazkilaritza digitalaren tresneria: argazki digitalak egiten dituenak honako tresna hauek erabili ohi ditu: argazki-kamera digitala, haren osagarriak eta lan-eremuko elementuak.

Argazki-kamera digitalaren osagarriak:
Objektiboak (*egokigailuak, bihurtzailuak*)
Iragazkiak
Fotometroa
Flasha
Memoria-txartelak
Bateriak eta kargadorea
Kliskagailua
Tripodea
Urperako karkasa.
Garbiketarako gauzak.
Zorroak eta dena garraiatzeko poltsa.

Lan-eremuko elementuak:
Ordenagailua.
Monitorea
(*proiektore multimedia*).
Eskanerra
Inprimagailua

Iragazkia: osagarri optikoa da, objektiboaren aurrealdean kokatzen dena, bai lenteak babesteko, bai hartu nahi den irudia gure gustura eraldatzeko, dela benetako koloreak aldatuz, dela argi efektuak erantsiz, dela... Hamaika efektu egiteko iragazkiak daude dendetan.


Flasha: eszena edo pertsonaia argiztatzeko tresna bat da. Distira gogorren bidez, ilunpean edo argi gutxi dagoen tokietako elementuak argiztatzen ditu. Eszena bateko argi-kontrastea leuntzeko ere erabiltzen da flasha.

Fotometroa: eszena batera iristen den argi kantitatea neurtzeko erabiltzen den gailu elektronikoa da. Fotometroa lagun, erabaki ahal izango dugu esposizio-denbora egokia. Argazki-kamera guztiek daramate esposizio-denbora neurtzeko gailu bat. Gailu horrek ematen dituen datuen arabera egiten ditu argazki-kamerak doitze-lan automatikoak. Horiez gain, baina, dendetan fotometro eramangarriak ere aurkituko ditugu; fotometro horiek izan daitezke: argi erasotzailekoak, argi islatukoak eta puntualak.

Objektiboa: enkoadratzea eta haren barruan hartutako fokatzea ahalbidetzen duen elementu optikoen eta mekanikoen multzoa. Argazki-kamera digital batzuek, objektiboen foku-luzera eraldatzeko eta egokigailuak edo bihurgailuak erabiltzeko aukera ematen dute.

Lan-eremua: argazki-kamera digitalarekin batera argazkilariaren tresneria digitala osatzen duten elementuen multzoari deritzo lan-eremua. Ordenagailua (teklatura, sagua, monitorea eta softwarea), eskanerra eta inprimagailua.

Argazki digitalaren prozesua: argazkia egiteko, ukitzeko, inprimatzeko edo ikusteko egin daitezkeen ekintzen multzoa.



Liburuak - Internet

Argazkilaritza digitalari buruz diharduten liburuen zerrenda egitea ez da zaila; baina, idatzizko argitalpenak dendetan agertu orduko, haietan adierazitakoa zaharkiturik geratu ohi denez, Internetera jo dezazuen proposatzen dizuet azken aurrerapenak ezagutzeko. Horregatik, liburuen ordeaz, fabrikatzaileen eta erabiltzaileen hainbat txokoren helbideak eskainiko dizkizuet. Helbide horietan beti aurkituko duzue azken orduko informazioa.

ARGAZKILARITZA DIGITALA INTERNETEN (helbide elektronikoak)

Argazkilaritza digitalaren gainerako informazioa.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Argazki-kamera_digital
<http://www.dzoom.org.es/>
<http://eibar.org/blogak/irigoien/162>
<http://www.ukberri.net/zerda.php>
<http://www.federacionfotovasca.org/joomla/archivos/JLmartinezV2.pdf>
<http://www.nuevafotografia.com/>
<http://www.fotonostra.com/>
<http://www.quesabesde.com/camaras-digitales/camaras.html>

Argazki-kamera digitalen fabrikatzaileak

<http://www.canon.es/>
<http://www.panasonic.es/>
<http://www.konicaminolta.es/>
<http://www.olympus.es/>
<http://www.sony.es/>

Monitorean fabrikatzaileak

<http://www.philips.es/>
http://es.lge.com/products/category/list/informatica_monitores.jhtml
<http://www.panasonic.es/>
<http://www.sony.es/>
<http://www.acer.es/>

Inprimagailuen fabrikatzaileak

<http://welcome.hp.com/country/es/es/welcome.html>
<http://www.epson.es/>
<http://www.canon.es/>

Multimedia-proiektagailuen fabrikatzaileak

<http://www.mitsubishielectric.es/>
<http://www.toshiba.es/>
<http://www.sony.es/>
<http://www.epson.es/>
<http://www.acer.es/>

Eskanerren fabrikatzaileak

<http://www.canon.es/>
<http://www.epson.es/>
<http://welcome.hp.com/country/es/es/welcome.html>

Argazkiak eraldatzeko programen egileak

<http://www.adobe.com>
<http://www.corel.com>
<http://www.equilibrium.com>


Bilduma osatzen duten DVDak

- 1.- Argazki-kamera digitala**
- 2.- Argazkilaritza digitalaren tresneria**
- 3.- Argazki-kamera digitalarekin lanean -1-**
- 4.- Argazki-kamera digitalarekin lanean -2-**
- 5.- Argazki-kamera digital sortzailea**
- 6.- Irudi digitalaren ezaugarriak**
- 7.- Irudi digitalen eraldaketa -1-**
- 8.- Irudi digitalen eraldaketa -2-**
- 9.- Argazki digitalen inpresioa**
- 10.- Argazki digitalak pantailan ikustea**
- 11.- Argazki digitalak web-orrietan**

ekoizlea:

iadi

Banatzaillea:



Getaria, 18-behea
01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

LG: 525 / 07

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena
dauka.

2008-01-17